

tante menos dura que la realidad. Hay escenas de algunos interrogatorios duros que he reconstruido como me los han contado y estoy segura de que no habrá nadie que no se lo crea. Lo que me parece duro es que ocurra el caso Grimaldos, que comenzó en 1910 y que ahora en 1979 no se pueda contar lo que pasó. Partimos del sumario del caso y de los testimonios de los familiares de los dos condenados y del muerto y de muchos que vivieron la historia y que siguen viviendo en Osa de la Vega, Tres Juncos y Belmonte. Entablar conversación con la familiar o con alguien que haya vivido la historia es apasionante. Todo esto —añade Pilar Miró— ocurre porque en este país no estamos acostumbrados a hablar de cosas desagradables. Antes de la muerte de Franco era imposible tratar estos temas, pero después tampoco se ha hablado de ellos. Creo que esta película va a ser la primera donde se podrá comprobar si esta situación ha cambiado o no.»■

Eta gero hau!!

Pozíago bizi dira gaur oportunistak eta atzo arte abertzale munduan inork ere ezagutzen ez zituen aberchaleak, azkeneko urteotan bizia lardaskatu eta galdu egin dutenak baino. Horrenbeste sofritu, «eta gero hau»...

Eta egia da.

Baina **NONDIK GATOZEN** ahaztu egiten zaigu. Eta gaur nik, laburki bederen, «nondik gatozen» hori gogorazi nahi nizueke.

Oinarritzat Antonio Zabalak atera berri duen liburua hartuko dut: «Afrika-ko Gerra, 1859-1860». (Auspoa, 129).

Liburua, sorta honetako besteak bezala, bertso-paperez eta bertso herrikoiez osatua da. Alegia, bertso horiek kantatu egiten ziren Gipuzkoa honetan, bai:

«Bertso berriak
Etxaniz-ek jarriak,
**IKASI ETA KANTATU
GOGOTIK GAZTIAK.**
Gerra irabaziko du
gure Españiak,
biba erregiñaren
soldadu maitiak».

Gure herrian zer den berri eta zer zahar, ahaztu egin bide zaigu. «Irrac bat» politikabidea eta sendimendua, esate baterako, nabarmen agertzen da joan den mendeko bertsoetan:

«Iru probintziako
euskaldun jentiak
egin naiko ditue
beren balentiaik:

mutilak onak gera,
igual jefiak,
kapaz gera iltzeko
mororik erdiak».

Azkeneko esaldian ageri den arrazakeriaren aztarna somatuko dugu bestetan ere. Baina nor «iru probintziak» aipu dira. Nafarroa... ez da gure arazoa!

Entzun dezagun, esate baterako, matxistak berak lotsasuko lituzkeen bertso hau:

«Nobiak aukeratu
gustokorik balitz,
beltzak zurien zale
omen dira agitz;
ni onetan engañuz
ibiltzen ez banintz
dirua eta damak
karreatu zaldiz»...

Arrazakeria eta matxismoa batera!
Ez da gaizki.

Eta inork zalantzarik baldin badu,
hau entzun beza:

«Marruekotarrak moro zatarrak,
infiel eta erejeak,
fede bageak, gaizki eziak,
bruto eta salbajeak;
trastornatuzten beti zebiltzen
jende eta parajeak,
orain eziko al ditu zerbait
españolén berajeak»...

Inperialismoak ez zituen batera lotsatzen gipuzkoar jende haiek, hemen ere ongi ageri denez:

«Erregiña ikusita
guazen ensegidan,
zer berri dan ikusi
dezagun Afrikan;
moruak laster juango
dirade andikan,
españolak jarriko
gerade kapitan».

«Jarriko gerade», bai. Iparragirrek Hendaian (eta ez Baionan!) bota zuen «Hara España» hura ez zen inondik ere harrigarria. Iparragirrek Hendaian senditu zuen muga, ez Aturrin. Eta 1859-ko bertsoak gauza bera baiesten dute.

«Moruak», dena dela, etsaiak dira, eta kitto:

«Ea, bada, euskaldunak,
orain da denbora,
moruak bentzidu ta
laster emen gera».

Eta «moro» madarikatu eta zatar horiek menderatu egin behar dira:

«Zeutan sartu eta
andikan barruna,
Tetuandik Tanjerra
daukagu fortuna;
kolerak galdu gabe
gure osasuna,
laster gure mende da
beltzen ondasuna».

Inondik ere ez da ageri kupdida bera ere:

«Guazen, guazen mutillak,
guazen Afrikara,
moruak jakin dezan
gu ere an gerala.
Baionet zorrotzak
sartu beretara,
ekarri bear degu
marroki bandera».

Gure «oitura garbiyak» eta «Malato-zuhaitza»ren errespetua, pikutan gelditu dira!

Etorkizuna non somatzen den, garbi dago behin eta berriz!

«Nekatua dira zerbait
gure probintziyak,
bañan aztuko dira
denboraz guztiyak.
Asko irabazi du
ama Espāñiak,
erakutsiz Afrikan
seme gerrariyak».

Piñarrek eta Del Burgok txarretsiko ez lituzketen esanak ez dira falta:

«Esnatu da leoia,
biba Espāñia!
Biba erdaldun eta
euskaldun guztiya!
Autsak astindutzien
bazeukan premiya
guri begira dago
Europa guztiya».

Eta agian garbikienik honoko honetan:

«Gure euskaldun maiteak,
orain da denbora,
esan biotzetikan:
«Españolak gera;
gerra gustokua degu»,
guztiok batera
alon!, bada, mutillak,
segitu aurea!»

Giro horretan neurtu behar da Arana-Goiriren ekarria; eta horren arabera ere gaur Arana-Goiriri bere «segitzaile»ek (omen!) egiten diote saldukieriaren latza.

Baina, denen laburtzapen gisa, hona hemen «Himno Guerrero de los Tercios Vascongados» delakoa:

«Guerra al moro» del vasco es el grito,
que su Reina Isabel dio esta voz:
A vanguardia la boina encarnada!
Lleve al campo enemigo el terror.
Muestra el vasco en la lid su bravura,
de su brazo robusto el poder,
y en asalto de plazas y peñas
grita: Aurrera ¡O morir o vencer!
Y allí planta la noble bandera
del castillo y del león vencedor:
que es la España su patria querida,
y es la patria del Cid Campeador»...

Eta abar, eta abar!

Euskal ezker abertzalearen bultzatzaileek hemen neurtu behar dute egindako lanaren handia. Eta honen arabera ere ikusi zer den berri eta ez zahar lurralde mindu honetan.

TXILLARDEGI